

KOLDO MITXELENA, BARCELONAKO UNIBERTSITATE AUTONOMOTIK DOCTOR HONORIS CAUSA

E. Knörr

Urriak 3, 1983, Barcelonako Unibertsitate Autonomoaren paraninfoan, Koldo Mitxelena jauna Doctor honoris causa izan zen jantzia. Janzketa hori ikastaro-irekiera ospakizunean egin zen.

Mahaian honako jaun hauek eseri ziren: Jordi Pujol, Generalitate Lehendakaria; Joan Guitart, Hezkuntz Kontseilaria; Pedro M. Etxenike, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza eta Kultur Kontseilaria; Antoni Serra Ramoneda, Barcelonako Unibertsitate Autonomoaren Erretorea; Antoni M.^a Badia i Margarit, Barcelonako Unibertsitatearen Erretorea; Gregorio Monreal, Euskal Herriko Unibertsitatearen Erretorea; Gabriel Ferraté, Barcelonako Unibertsitate Politeknikoaren Erretorea; Miquel Martí, Generalitateko Unibertsitate-ikasketen Zuzendaria, eta Antoni Dalmau, Barcelonako Diputazio Lehendakaria.

Entzuleen artean, Unibertsitate bereko eta beste zenbaitetako irakasle eta ikasleak, Mitxelena jaunaren senideak eta adiskideak, euskaltzainak eta urgazleak.

1982-83 ikastaroaren Memoria Unibertsitate Idazkariak irakurri ondoren, irekiera-hitzaldia eman zuen Josep Egozcue i Cuixart jaunak, "De Quincey, von Neumann i el valor (Fantasia Teòrica)" gaia harturik. Jarraian, ohi den bezala, Mitxelena jauna deitua izan zen eta bi irakaslek lagundurik aretoan sartu zen, txalo luze beroaren artean.

Bere hitzaldian, Mitxelena jaunak hizkuntzalaritzari buruzko bere usteak eta gogoetak aipatu zituen, konparatismoa eta histori hizkuntzalaritzaren, alde batetik, eta estrukturalismoaren on-gaitzak, bestetik, labur baina zorrotz agertuz.

Ondoren, José Manuel Blecua, Hispani Filologia irakasleak Mitxelenaren bizi-tzaz eta lanaz mintzaldi ederra eman zuen.



Eskumatik ezkerretara: Lluís Barbé i Durán, Jose Manuel Blecua Perdices eta Koldo Mitxelena

Euskal Herriko Unibertsitatearen Erretoreak ere hitz egin zuen, Mitxelena euskaldunen demokrazi tradizioaren, hots, gure herriaren ondarerik hoberenaren erakusgarri zela.

Honoris causa Dotore berria goratu zuten, orobat, Serra Ramoneda Erretoreak eta Jordi Pujol Lehendakariak, zorion agiankatuz.

Bukaeran, *El cant de la senyera* eta *Gaudeamus igitur* kantez gain, Unibertsitatearen koro-orkestrek *Agur Jaunak* kanta eskaini zuten.